

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteazkena, 2013ko maiatzaren 8a. IX. urtea. 2.590. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Jabekuntza Eskola martxan jarriko dute

Emakumeen partaidetza eta jabekuntza sendotzeko asmoz Tolosako Udalak hainbat jarduera antolatu ditu <sup>03</sup>

**Jon Maia**

Bertsolaria eta kulturgilea

«Desagerrarazi  
egingo nituzke  
'euskaldun zahar'  
eta 'euskaldun  
berri' terminoak»

Elkarrizketa <sup>02</sup>

**Maiatza  
Borrokari  
jardunaldiak  
etzi hasiko dira**

Tolosaldea Sahararekin  
elkarteak antolatu dituen  
ekitaldietan lehena, Alex  
Garcesen hitzaldia da <sup>05</sup>

**Kilometroak eta  
komertzioa  
bultzatzeko,  
akordioa <sup>07</sup>**

**Babes ofizialeko  
etxeak eraikitzen  
hasiko dira,  
Anoetan <sup>04</sup>**



Elkarretaratzea egin zuten atzo Gaztelun, Andoni Goikoetxea askatzea eskatuz. A. IMAZ

## Andoni Goikoetxearen atxiloketa salatu dute

Gaztelun Andoni Goikoetxea herritarrari elkartasuna adierazteko, eta bere atxiloketa salatuzko elkarretaratzea egin dute; ETako kide izatea egotzita beste bost pertsonekin batera atxilotu dute, Frantzian <sup>05</sup>



**TOLOSALDEA** LANBIDE HEZIKETA  
INSTITUTUA



# “ATE IREKIEN EGUNA”

MAIATZAK 8, ASTEAZKENA • 17:00etatik 20:00etara



Ikasle, guraso, langile,  
enpresa eta interesatu  
guztiei zuzendua.

Ikastetxeko baliabideak,  
instalazioak eta eskaintza  
ezagutzeko bisita gidatua.

**Jon Maia** > Bertsolaria eta kulturgilea

Euskal eta erdal komunitateen artean, urteetan zeharreko aurreritziak izan direla dio Jon Maiak. Tabu hau puskatzen saiatuko da bihar, 19:30ean, La Jaran eskainiko duen hitzaldian.

# «Nire familiaren jatorriak eragin handia izan du nigan»

**Itzea Urkizu** Tolosa

1972an Urretxun jaio zen Jon Maia, eta Zumaian igaro ditu bere bizitzako urte gehienak. Bere arbasoak, ordea, Extremaduratik Euskal Herrira etorri ziren duela zenbait hamarkada.

Testuinguru horren kontakizuna eskainiko du bertsolariak, bihar, 19:30ean, La Jara elkarte-an, *Riomundo, historia de una familia emigrante* izenburupean, «urteetan barrena bizirik izan ziren aurreiritziak eta estereotipoak» eraiesteko bidean.

**Bihareskainiko duzun hitzaldian, zertuzun ahal izango dute bertaratuak?**

Egingo dudana zera da, nire familiaren bizi-esperientzia kontatu; beren lurraldetik hona etortzeko prozesua. Eta batez ere, beraiek beren lurra utzi zutenetik, ni bertsolari izan arteko ibilbidea kontatuko dut, nire familiaren ikuspuntua eta nirea konbinatuz. Esperientzia bat kontatuko dut, testigantza moduan, eta nolabait etorri ziren haien ikuspuntua lantzen duena. Azken finean, nire familiaren jatorriarekiko, nire bizipenak kontatuko ditut.

**Antzeko hitzaldi batzuk eskaini dituzujada, beste zenbait lekutan. Nolako harrera izaten du zure testigantzak?**

Ba, oso harrera berezia izan da, orain arteko saioetan behintzat, urteetan barrena apenas ukitu gabeko gaia izan delako. Gaur egungo emigrazioarekin, zorionez, hasi dira zenbait lan ildo jo-

rratzen, eta badaude protokolo batzuk, nahikoa ez diren arren. Baina, Francoren diktadura garaian etorri ziren *mantcurriano, belarrimotz, hezurbeltz, maketo* eta *koreano* horiekin, ez da ia ezer landu. Gertatu izan diren integrazioak, indibidualki lortu direnak izan dira. Orduan, gai hau tabu samarra da, enkistatua edo fosilizatua geratu dena.

**Hori aldatzeko oinarriak falta dira?**

Bai. Nik uste dut, gaur egun bizi dugun kultura eta politika normalizazio ezaren jatorrian, zati handi bat, gai honen kudeaketa faltari dagokiola. Ondorioz, hi-

«Jende askoren historia da, azken finean, nik kontatzen dudana»

«Desagerrarazi egingo nituzke 'euskaldun berri' eta 'euskaldun zahar' terminoak»

tzaldi hau *Casa de Extremadura* edo *Casa de Andalucía* batean ematen duzunean, eurek nahiz euskaldunek, lehengo aldiz entzuten dituzte zenbait gauza. Era berean, saioan lehenengoz pasatzen dira langa fisikoak, esaterako, zenbait euskaldun leku horietara estreinakoz sartzen direnean; langa psikologiko batzuk ere, lehenengo aldiz gaintzen dira, gainera. Emozio handiko momentuak bizitzen ditugu. Airean

geratu den zerbait da, egiteke, eta hor badago karga emozional handi bat; gainera, jende askoren historia da, azken finean, nik kontatzen dudana. Hunkidura berezi bat sortzen da beti.

**Zure kasuan, nolakoa izan zen euskal kulturara gerturatzeko hori?**

Nire kasua hemengo beste edozein umerena bezalakoa izan da, ni Euskal Herrian jaio nintzelako, eta txikitatik ikastolara joan izan naizelako; betidanik egin izan dut euskaraz, beraz. Dena den, nire familiaren jatorriak eragin handia izan du nigan, eta bizi izan naizen euskal testuinguruan ere, sortu izan dizkit konplexuak, kontraesanak, eta horrelako gauza asko. Baina ni zer naizen jakiteko, atzera begiratu behar izan dut, eta nire aurrekoek eman zituzten pausoak begiratzean konturatu naiz, zergatik naizen naizena. Beraz, nire kontakizuna omenaldi txiki bat ere bada, integratzen ahal diren bat egin duten guztiei.

**Erabat integratzea lortu ez dutenei ere eskainiko diezu testigantza.**

Bai. Integratzea lortu ez duteneko beste begirada bat ere sortu nahi nuke euskaldunengan. Izan ere, azken 60 urteotan etxebizitza berean bizi izan arren, estereotipo, aurreiritzi eta mesfidantza asko izan dira bi komunitateen artean, erdal komunitatearen eta euskal komunitatearen artean, alegia. Banaketa sozial eta kultural hori existitzen da oraindik ere, neurri handi batean, eta banaketa politikorekin bat egiten du, ez da kasualitatea. Nik uste dut, his-



GOTZON ARANBURU

toriaren momentu hau, nolabait euskaraz lasaitasun garaia izanik, momentu egokia dela hurbiltze hauek egiten hasteko. Oso berandu dator, baina inoiz ez da berandu egi.

**Hizkuntzari begira jarri, euskarara hurbiltzen saiatzen direnekin tolerantzago izan beharko luke euskaldun zaharrek?**

Nik kolpe batean desagerraraziko nituzke, *euskaldun berri* eta *euskaldun zahar* terminoak; normalizazio prozesu baten kontra-koia iruditzen zait terminologia hori. Zeren, esaterako, bere hizkuntza galtzen utzi duen, nahiz lotsak, zigorrak edo bestelako faktore jakin batzuenatik bere hizkuntza galdu duen pertsona, hemen jarioa izango da, zortzi abiopuz euskaldun edukiko ditu, eta abar, baina ez da euskalduna. Aldiz, Galiziatik edo Extremaduratik etorri den batek, *eusko labelik* ez izan arren, eta hemengo abizen bakar bat ez izan arren, euskalduna izango da behar bada. Zer axola du antzinatasunak hizkuntzaren? Zer axola du euskaldun za-

harra edo euskaldun berria izateak? Euskalduna zara edo ez zara. Zentzu horretan, oso zehatzak edo bidezkoak ez gara izan uste dut, jendea epaitzerakoan.

**Kontuak kontu, euskararen ezagutza igo den arren, erabilera jaitsi egin da.**

Bai. Hori noren errua da, ikasi ez dutenena? Edo galdu dutenena? Ez dut uste garrantzitsuen hori denik, baina bai normalizazio baten bidean, integratzen ari diren ematea, eta hesiak eta estereotipoak desagertzea. Horri jartzen diot nik arreta.

**Biharko hitzaldia, hasiera batean, euskal komunitateko kide ez direnak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzeko baliagarria dela pentsa daiteke. Zure testigantza, ordea, bertakoek entzuteko modukoa ere bada.**

Nik baietz uste dut. Garai hartako etorkin askok beren bizitza islatuta ikusiko dute nire kontaktuzunean, eta bere ikuspegia nola kontatzen den lehenengo aldiz entzungo dute. Bestetik, bertakoei lehenengo aldiz iritsiko zaie besteen ikuspegia. Enpatia ariketa bat egiteko beharrezkoa da bi aldean ikuspegia. Nire kasua, zorionez, berezi samarra da, eta ni bezalako milaka pertsona izango dira, etorkinen seme-alabak baina euskaldun jaio direnak. Nire kultura beti euskal kultura izanagatik, bertsolari izatera iritsi izanak oso posizio onean jartzen nau, bi kulturen artean, nire familiaren esperientziatik ikusi ahal izan dudalako beren kultura eta bizipenak zein izan diren. Beraz, zubi horretan kokatzen naiz ni; bi begiradekin jokatzeko dute.

## ↓ Iragarki laburrak

### SALGAI

**Etxebizitza bifamiliarra.** Orendainen salgai edo alokairuan etxebizitza bifamiliar berria, izkina batean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldia, egongela-jangela, tximinia, bi terraza-lorategi eder, trastelekua, garaje bikoitza, eta abar. 145 metro karatu ditu. Ikuspegi irekiak eta independentea da. Baratzea du.

Interesa dutenek deitu 943 65 42 72 edo 661 31 98 47 telefono zenbakietara.

### LAN BILA

**Etxeko lanak.** Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. 943 696882 / 606 521992.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Emakumeen jabekuntza sendotzeko eskola jarriko dute abian

Etzi emango zaio hasiera Tolosako Jabekuntza Eskolari; gaur da tailerretan izena emateko azken eguna

## Enertiz Maiz

Emakumeen partaidetza eta jabekuntza sendotzeko asmoz, ostiralean hasiko da Tolosan Jabekuntza Eskola. Tolosako Udaleko Berdintasun sailak eta Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasuna sailak antolatu dituzte jarduerak. Hitzaldiak, tailerrek eta erakusketa izango dira aukeran. Miren Urkola Berdintasun zinegotziak azaldu zuenez, «emakumei munduaz duten pertzepzioa aldatuoa da, eta aldi berean, mundua aldatzeko tresnak eskainiko dizkien esperientzia da aurkezten dena».

Jabekuntza esatean, «kaskuntza eta kontzientziazte prozesu bat adierazi nahi da», argitu du Urkolak. Horrez gain, «mundu osoko gizarteak egituratzen dituen sexismoak emakumei ezartzen dien diskriminazioa eta gutxiagatasun egoera salatzea, eta horren kontra borroka egitea ahalbidetzen duen prozesua», gaineratu zuen.

Era berean, «espazio hau emakumeen partaidetza eta jabekuntza sendotzeko dago pentsatuta, eta gizarte justu, askotariko eta osoago bat lortzeko», argitu zuten antolatzaileek.

Tolosako Jabekuntza Eskola ez da ohiko prestakuntza eskaintzen duen leku bat. Hori baino gehiago dela adierazi zuten. Duela urte batzuk, Mugimendu Feministak jakintzaren ekoizpen kolektibo eta partekatutako metodologia bat sortu zuen eta Tolosako Jabekuntza Eskolan hori erreproduzitu egiten da. «Esperientziak, jakintzak eta narrazioak partekatzea da kontua, baina baita gorputzaz disfrutatzea ere. Eta diskurtsoak, artea eta errebindikazioak produzitzea» esan zuen Urkolak.

Jabekuntza eskolan parte hartzeko izena eman behar da, eta interesatuek bi bide dituzte: 943 67 03 83 telefono zenbakira deituta (11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara), edota bestela, internet bidez, *berdintasuna@tolosakoudala.net* helbide elektronikora mezu bat bidalita. Tailer guztiak doakoak dira, eta izena emateko epea, gaur, hilak 8, amaituko da. Aurrez abisatu gero, gainera, doako haurtzaindagi zerbitzua ere eskainiko da. Aiton-amonak zaintzen dituztenek parte hartu ahal dezaten, aitona-amonak zaintzeko zerbitzua ere jarriko da. Horretarako aurrez abisatu behar da.

## Lehen tailerra, etzi

Hainbat tailer eta hitzaldi izango dira datozen asteetan, eta ostiralean, hilak 10, izango da lehenengo jarduerak. *Zuri zer kontatu dizute feminismoaren gainean?* tailerra dinamizatuko du Zaida



Kristina Morales, Miren Urkola eta Agurtza Zuberok aurkeztu zuten Jabekuntza eskolako egitaraua. I. GARCIALANDA

## ↓ Jabekuntza Eskola

### EGITARAUA

■ **Maiatzak 10, ostirala.** 'Zuri zer kontatu dizute feminismoaren gainean?' tailerra izango da Zaida Fernandez Perezen eskutik. 16:00etatik 20:00etara kultur etxean izango da.

■ **Maiatzak 15, asteazkena.** 'Jabetze eskolak emakumeentzat. Zein jabetze motaz ari gara?' hitzaldia eskainiko du Mertxe Fernandez Bogak. 19:00etan, kultur etxean izango da.

■ **Maiatzak 17, ostirala.** 'Autodefentsa feminista burokrazia ekonomikoaren kontra' tailerra emango du Aurora Iturrioz Lopezek. 16:00etatik 20:00etara izango da.

Fernandez Perezek. Tolosako kultur etxean egingo da tailerra, 16:00etatik 20:00etara.

«Feminista naiz» esatea estigmatizatuta dagoela oraindik, eta ez dagoela ondo ikusita ekarriko dute gogora ostiraleko tailerrean:

■ **Maiatzak 23, osteguna.** 'Zaintza lanaren aitortzea. Tordas las horas cuentan' hitzaldia izango da, 19:00etan, Aranburu jauregian. Hizlaria, Isabel Otxoa Crespo izango da.

■ **Maiatzak 30, osteguna.** 'Zaintzea, zaintzaileak eta estrak' hitzaldia izango da Miriam Herbon Ordoñezek eskutik. 19:00etan, Aranburu jauregian elkartuko dira.

■ **Maiatzak 31, ostirala.** 'Norena da nire dirua?' tailerra izango da, 16:00etatik 20:00etara, kultur etxean. Dinamizatzaile lanetan, Miriam Herbon Ordoñez eta Luciana Davies ariko dira.

■ **Ekainak 6, osteguna.** 'Zain-

tzea asko kostatzen da! Intsumisioa nahitaezko zaintzeari' hitzaldia izango da, 19:00etatik aurrera, Aranburu jauregian. Hizlari lanetan, Dominique Saillard Bouysse ariko da.

■ **Ekainak 14, ostirala.** 'Autodefentsa feminista tailerra' izango da Maria Garcia eta Eider Olazar Elduaienen eskutik. 16:00etatik 20:00etara kultur etxean izango da.

■ **Erakusketa.** Elkarrekinon menpekotasunak, etxeko langileak eta zaintzaren krisia erakusketa maiatzaren 17tik ekainaren 8ra egongo da zabalik, Aranburu jauregian. Bisita gidatua, maiatzaren 18an izango da, Esther Morenoren eskutik.

«Bizi dugun gizarte matxistak feminismoa desprestigiatzeko mezuak zabaltzen ditu etenik gabe. Baina ba al dakigu, benetan, zer den feminismoa? Ezagutzen al ditugu mugimendu feministaren borroka, lorpenak eta ekarpe-

nak? Zer lotura dago feminismoaren eta demokraziaren artean?». Tailer horretan, gai horietaz eta teoriarekin eta ekintza feministarekin lotura duten gaien gainean egingo dute hausnarketa.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

## ✉ Gutuna

## Zezenari adarretatik, jakina!

Hondakinekin arazoa daukagula gauza jakina da. Baita EAJk eta PSEk ere. Arazoa izan dugu, daukagu eta aurrerantz ere izango dugu, ez badiogu zezenari adarretatik heltzen. EH Bildu osatzen dugun indar politikook hiri hondakinen arazoari heltzeko prest eta animatuta gaude. Errauste planta ez egitea ahalbidetuko duen konponbidearen bila gabilta. Ez dugu errauste plantarik nahi Zubietan, ezta Tolosan ere, ez baitiogu inori minbizirik opa.

Hondakinen bilketa selektiboa egoki bideratzeko dauden era desberdinak aztertuko dituen ikerketa

abiatuko duen oinarriak onartu ditu udalak. Hasteko, hondakinen %70 modu selektiboan jasotzea bermatzea dugu helburutzat, aurrerantzean helburu hori gainditzen joateko. Gure etxebizitzetan sortzen dugun hondakinen zati handi bat denok birziklatzea ezinbestekoa da arazoari irtenbide egokia emateko. EAJk ere onartutako proposamena da, lan-mahaia utzi aurretik ontzat jo zuena, hauteskunde interesengatik eta errauste planta egiteak emango dizkion etekinengatik lan mahaia utzi aurretik onartu zuena. Erabaki hori hartzeko esku-bide osoa du EAJk, baina herritar-

rak nahastu eta engainatu gabe. Hondakinen arazoa ez da alderdi politikoen eta udalaren arazoa soilik, herritar guzti-guztiona baizik. Arazoaren zati bat gure etxebizitzetan daukagu eta hortik hasi beharra dauka konponbideak ere, etxebizitza bakoitzetik. Norberak bere etxean hondakinak egoki sailkatzea da konponbidearen zati garrantzitsua eta hori egingez gero, hondakinen gainontzeko arazoak ere bideragarriago izango dira.

Hondakinak sailkatzea norberaren nahien arabera izan behar du edota guztion betebeharrak zoziala da? Ez sailkatzeak ez birziklatzea dakar, eta hori ez da herritarren esku-bide bat, are gutxiago errauste plantak minbizia areagotzen due-

nean. EAJ eta PSEko jaun-andreok, eman diezaigun gai honi duen garrantzia, konponbidea etxeetan hondakinak sailkatzean baitago, hortik etorriko baita irtenbidea denok ederi asko dakigun moduan.

Arazo domestiko bat maila politikora eramaten ari zarete bi arrazoi hauengatik: udal gobernu eta Foru Diputazioa desgastatzeko duzuen grina neurrigabeagatik eta errauste planta egiteak emango dizkizuen etekin ekonomikoengatik. Hauek dira zuen benetako motiboak gai domestiko tekniko bat politizatzeke. Gure aldetik ez gara polemika antzuetan sartuko, gure helburua denon artean erabakitakoa da, EAJ barne. Helburu garbia: %70a birziklatzea izango da. Ho-

regatik dei egiten diegu EAJ eta PSERi helburu hori onar dezaten, etorkizuna dugulako jokoan, gipuzkoarren osasuna ere bai, Madrilgo Carlos III ikerketa zentrokiko ikerlarietara errauste plantaren inguruan minbizia areagotzen dela ziurtatu duten honetan. Denon artean lortuko dugu. Ziur gaude.

Udaleko gobernu taldearen lana babesteaz gain, hartutako bidean aurrera egin dezaten animatzen ditugu, beren interes ekonomiko eta elektoralengatik helburuak eta bidearekin nahaspila sortu nahi dutenen gainetik. Helburuak merezi du, lur planetak eta gure osasunak eskertuko digute.

■ **I. Elduaien, P. Etxezarreta eta A. Atorrasagasti.** Tolosako EH Bildu

# Jarri dituzte jadanik Mikelasagasti aretoko besaulkiak

92 laguntzako lekua izango du auditorioak, eta honekin amaitutzat emango dituzte aretoa eraikitze lan guztiak

M. Iraola Anoeta

Anoetako Mikelasagasti auditorioak beste itxura bat hartu du: besaulkiak jarrita daude dagoneko. Ikastola eta kiroldegia ondoan dagoen eraikuntza 2011. urtean inauguratu zen, eta orain arte egurrezko aukerak moldatu behar izan dira antolatzen ziren ekintzetara gerturatzen zirenak.

Apirila bukaeraz geroztik, ordea, eta hasiera batean udaleko le-

hentasunetan ez bazegoen ere, besaulkiak jarri dituzte, herriko enpresa batek eskainitako laguntza baliatuz. Denera, 92 pertsonentzako eserlekuak daude auditorioan, eta erabiltzaileak pozik dabilta orain.

Gaur egun jarduera asko egiten dira Mikelasagasti auditorioan: dantza ikastaroak, musika saioak, Qi-Gong, filmen proiektzioa, hitzaldiak, aurkezpenak... Erabilpen oparoa ematen zaio, beraz, eta kultur sustapenari begira erreferentzia gune bihurtu da herrian.

Bestalde, beren ekimenak bertan aurrera eramateko, herriko eragileei ateak zabalik dituztela gogoratu nahi izan die udalak, aldez aurretik udalaxean giltza eskatuz gero.



92 eserleku izango ditu Mikelasagasti auditorioak. HITZA



turtxulo eta ikastola bitarteko hiru eraikinen lanak berehala amaituko dira. M. IRAOLA

# Babes ofizialeko etxeak eraikitze lanak hasiko dira

25 etxebizitza izango ditu eraikuntza berriak, eta 2015. urte hasiera aldera lanak amaitzea aurreikusten du udalak

Mikel Iraola Anoeta

Salmenta libreko hiru etxebizitza bloke eraikitze lanak amaitzeko hilabete eskas falta dela, babes ofizialeko etxeak eraikitze lanak lehen urratsak ematen hasiko dira datoren aste hauetan.

Ekaina bukaera aldera amaitu-

ko dira lehen hiru blokeen obrak. 90 metro karratu inguruko 25 etxebizitza osatuta dago bloke horietako bakoitza.

Hiru bloke horiez gain, babes ofizialeko beste bat ere eraikiko dute alboan. Hori altxatzeko lanak hilabete honetan hasiko dituzte, eta 2015. urte hasierarako amaitzea aurreikusten dute.

### Zonaldea, «dotore»

Guztira 25 etxebizitza izango dira eraikin berri horretan, eta horietako bakoitzak 80 metro karratu inguru izango ditu. Pello Estanga, Anoetako alkatearen esanetan,

Iturtxulotik hasita, ikastolara doan bideak «asko irabaziko du» lan hauek amaitzen doazen heinean: «Lehen zegoenarekin konparatuta, oso dotore dago orain. Erreka desbideratu egin da, eta pasealekua zabaldu eta zuhaitzez atondu da».

### Udal etxebizitza alokatuta

Bestalde, udaleko jabetzakoa den etxebizitza bat alokatu duela jakinarazi du udalak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonen zuzenduta deialdi irekia egin zuten, eta bertan bizitzen dira jada.

o anoetaledea@hitza.info

## BERRIA egunkarian udan KAZETARITZA PRAKTIKAK egiteko deialdia

### PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

#### GIPUZKOAN

EGUNA: maiatzaren 14an  
TOKIA: Andoaingo Martin Ugalde kultur parkea.  
ORDUA: 16:00etan

#### BIZKAIAN

EGUNA: maiatzaren 14an  
TOKIA: EHUko Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 30. gelan  
ORDUA: 12:00etan

#### ARABAN

EGUNA: maiatzaren 14an  
TOKIA: BERRIaren Gasteizko egoitzan (Bizenta Mogel, 6, behea).  
ORDUA: 09:30etan

#### NAFARROAN

EGUNA: maiatzaren 14an  
TOKIA: BERRIaren Iruñeko egoitzan (Iratxeko monasterioa, 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerria)  
ORDUA: 10:00etan

Probara curriculuma ekarri behar da

## Irudia Anoeta



# SORTU ETA ERNAI AURKEZTU DITUZTE

Anoetako Sortu eta Ernai taldeak aurkeztu dituzte Anoetako Mikelasagasti auditorioan. Herritarrei euren asmoen berri eman zieten, eta «etorkizuneko Anoeta eta Euskal Herria eraikitze lan

asko» egingo dutela esan zuten. Bi eragileetako ordezkariak azaldu zuten moduan, epe laburrean duten helburuetako bat, jendearen parte hartzea gehiago sustatzea da. HITZA



Tolosaldea Sahararekin elkarrekin Sahararen inguruko jardunaldiak herenegun aurkeztu zituen, Tolosan. A. IMAZ

## Aurtengo Maiatza Borrokan Frente Polisarioaren 40. urteurrenean iritsiko da

Alex Garcesek baliabide naturalen bidegabeko lapurtzeaz hitz egingo du Tolosako kultur etxean, etzi,

**Asier Imaz** Tolosa

Tolosaldea Sahararekin elkartek 40 *Maiatza Borrokan* egitasmoa aurkeztu zuen. Urtero bezala, hitzaldiak, bideo emanaldiak, mobilizazioak eta abar antolatuta dituzte Tolosan, hilaren 10etik 20ra bitartean. Aurtun, bi urteurren berezi ospatuko dituztela azaldu dute Tolosaldea Sahararekin elkartetik: «Alde batetik, due-la 40 urte sortu zen Frente Polisarioa, eta bestetik, Marokoren aurkako lehen ekintzak ere, 40 urte beteko ditu».

**Alex Garcesen hitzaldia, etzi**  
40 *Maiatza Borrokan* jardunaldiak etzi hasiko dira, Alex Garcesen hitzaldiarekin. Western Sahara Resource Watch taldeko kideak Saharako baliabide naturalen inguruan hitz egingo du, hain zu-

### ↓ Egitaraua

#### MAIATZAK 10, ETZI

■ **19:30.** Alex Garcés Western Sahara Resource Watch-eko kidearen hitzaldia Tolosako kultur etxean. Gaia: *Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen bidegabeko lapurtzea.*

#### MAIATZAK 16, OSTEGUNA

■ **19:30.** Beñat Hach Embarek Irizar kidearen hitzaldia, Tolosako kultur etxean. Gaia: *Mendebaldeko Sahara, konpondu gabeko gatazka zahar bat.*

#### MAIATZAK 17, OSTIRALA

■ **19:30.** Zine emanaldia Tolosako kultur etxean. Alvaro Longoria zuzendariaren *Hijos de las*

*nubes* dokumentala. Javier Bardem aktorearekin. Dokumental onenari 2013ko Goya saria irabazi zuen Longoriaren lanak.

#### MAIATZAK 18, LARUNBATA

■ **Egun guztian.** Trianguloa plazan Erresistentzia Haima: dokumentalak, tea, Saharako ohi-turak, henna, musika, ...

#### MAIATZAK 20, ASTELEHENA

■ **19:30.** Trianguloa plazan elkarretaratzea *Maroko Mendebaldeko Saharatik atlelopean.* Estatu zapaltzaileari eginiko lehen ekintzaren 40. urteurrena ospatuko dute.

amaituko dira, Frente Polisarioaren lehen ekintzaren 40. urteurrenean. 19:30ean elkarretaratzea egingo dute Tolosako Trianguloa plazan, *Maroko Mendebaldeko Saharatik atlelopean.*

## Goikoetxearen atxiloketa salatu dute Gaztelun

Jorge Fernandez Diaz Espainiako Barne ministroak ETAko kide izatea leporatu dio Andoni Goikoetxeari

**A. Imaz** Gaztelu

Andoni Goikoetxeari elkartasuna azaltzeko, eta bere atxiloketa salatzeke, elkarretaratzea egin zuten atzo iluntzean Gaztelun. Eskualdeko herritar ugari elkartu zen bertan. Mobilizazioan, atzoko polizia operazioan atxilo eraman zituzten beste bost euskal herritarrek ere gogoan izan zituzten.

Frantziako Poliziak guztira sei pertsona atxilotu zituen atzo goizean, ETA erakundeko kide izatea egotzita. Andoni Goikoetxea gazteluarra Correze departamentuan dagoen Brive-la-Gaillarde herrian atzeman zuten, Raul Aduna gasteiztarrekin batera. Gainontzeko atxiloketak, Loir-et-Cher departamentuko Blois hiriburuan eta Montpellierran izan ziren. Operazio hauetan, Igor Uriarte (Barrundia, Araba), Julien Mendizabal (Arrasate), Ekhiñe Eizagirre (Zarautz) eta Kepa Artauz (Arrasate) eraman zituen Frantziako Poliziak.

Jorge Fernandez Diaz Espainiako Barne ministroaren esanetan, atzoko polizia operazioarekin, «ETAren nukleo logistikoa deseginda gelditzen da». Horrekin batera, Frantziako Poliziak eta Guardia Zibila elkarlanean buruturiko operazioa izan zela azpimarratu zuen Fernandez Diazek.

Espainiako Barne ministroaren hitzetan, Andoni Goikoetxea eta Raul Aduna ETA erakundeko «zuloen arduradunak» ziren. Gazteluarraren inguruan, lehergailuetan erakundearen zegoen «aditurik handienetakoa» zela esan zuen.

Polizia operazioa 2012ko urrian kokatu zuen Jorge Fernandez Diazek: «Izaskun Lesaka atxilotu ondoren hasi ginen hariari tirak».

#### Bi urte eta gero

Guardia Zibila 2011ko apirillean joan zen Andoni Goikoetxearen bila Gaztelura. Polizia miaketak Txaramara ere zabaldu ziren, baina ez zuten Goikoetxea atzemarrik loritu. Aitor Esnaola legorretarraren atxiloketaren harira etorri ziren miaketak.

Bi urte igaro ondoren, 53.000 biztanle inguru dituen Okzitaniako Brive-la-Gaillarde herrian atxilotu dute.



Andoni Goikoetxea, 2005eko Gipuzkoako Segatxapelketan. HITZA

**INFORMATIKO  
FUTBOLARI  
INJINERU  
ARRAUNLARI  
DANTZARI**

Tolosan  
Batzarretan berriz gaitia  
Gaitia berriz gaitia berriz gaitia  
Gaitia berriz gaitia berriz gaitia  
Gaitia berriz gaitia berriz gaitia  
Gaitia berriz gaitia berriz gaitia

**BAT**

Bat Bata sarrak 27 - 942 67 02 11 - [bat@batbata.org](mailto:bat@batbata.org) - [www.batbata.org](http://www.batbata.org)



harpidedun **hitza**



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare bat** du

Maiatzak 16 - Osteguna  
20:15etan  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC  
FC Barcelona**  
saskibalo partida

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

# 67. urteurrena ospatuko du Behar Zana elkarteak ekaina hasieran

Ekainaren 1ean ospatuko dute egun handia eta horretarako pilota partidak, afaria eta danborrada izango dira

**Mikel Iraola** Amasa-Villabona

Ekaineko lehen asteburuan, 67. urteurrena ospatzeko asmoarekin, hainbat ekitaldi antolatatu ditu Amasa-Villabonako Behar Zana elkarteak.

Maiatzaren 31n, ostiralean, hasiko dira ospakizunekin. Arratsaldean, txupinazoa botako dute elkartearen bertan, eta ondoren sagardo eta ardo dastaketa izango da Berdura Plazan. Edari eta pintxoak bi euro balioko ditu, bakoitzak euro bat.

Larunbatean ospatuko da egun handiena. Goizean goiz, 09:30ean, xake txapelketa jokatu dute elkartearen bertan. Ondoren, pilota eskolako finalak jokatu dituzte Behar Zana pilotalekuan.

Arratsaldean, 16:00etatik aurrera, pilota jaialdia izango da. Lehenik eta behin, eskuz banaka, lau t'erdian, Mikel Otaño eta Ormazabal Artzai I.a arituko dira. Ondoren, Emakumezkoen binakako pala partida jokatu dute. Bertan, Ainhoa Garmendia eta Milder Mendizabal, Naty Evaristty eta Nagore Arozenaren aurka lehiatuko dira. Seniorren txanda izango da ondoren. Jon Alejo I.ak eta Sergio Sanchezek Zubietako bikotearen aurka jokatu dute.

Partidarik esanguratsuen, azkena izango da. Afizionatu mailan, eskuz binaka, Mikel Goñi eta Laurent Erreka, Iñaki Lizaso eta Aitor Gorrotxategiren aurka arituko dira.



Behar Zana elkarteak goiztea berria estreinatu zuteneko afaria. HITZA

## ↓ Egitaraua

### MAIATZAK 31, OSTIRALA

- **18:00.** Txupinazoa eta pregoia elkarte aurrean.
- **18:10-19:30.** Ardo eta sagardo dastaketa Berdura Plazan. Pintxo potea bi eurotan.

### EKAINAK 1, LARUNBATA

- **09:30.** Xake txapelketa elkartearen.
- **10:30.** Pilota eskolako finalak Behar Zana pilotalekuan.
- **16:00.** Pilota jaialdia

19:00etan, hildako elkartekideen aldeko meza egingo dute, eta afal aurretik dantzaldia izango da Errebote Plazan.

Afaria, 20:15ean egingo dute elkartearen bertan. Bazkideentzako

- **19:00.** Hildako elkartekideen aldeko meza.
- **19:30-21:30.** Dantzaldia Errebote plazan.
- **20:15.** Afaria bazkideentzat.
- **23:15.** Danborrada Incansables txarangarekin.
- **00:30-03:30.** Dantzaldia

### EKAINAK 2, IGANDEA

- **09:00-10:00.** Diana.
- **10:30.** Buruhandiak eta trikitaliak.
- **11:30.** Errebote partida plazan

izen-emate epea zabalik da dagoeneko, maiatzaren 26ra bitartean. Ez bazkideek aldiz, maiatzaren 20tik 26ra egin ahal izango dute, baldin eta ordurako 140 lagunentzako tokia bete ez den.

Gauean, 23:15etatik aurrera, danborrada izango da herriko kaleetan zehar Incansables txarangaren laguntzaz. Ostiralean, hilaren 10ean, amaituko da izen-emateko epea. Horretarako, elkartera joan edota [beharzana@gmail.com](mailto:beharzana@gmail.com) helbidera idatzi beharko da. Partehartzea, edonori irekia dago.

Bestalde, hiru entsegu burutuko dituzte danborradarako. Lehe-na ostiralean bertan izango da, kultur etxean, 19:00etan. Hurrengo, hilaren 24ean izango da. Eta azkena maiatzaren 31n egingo dute, 19:45ean. Danborradaren ondoren, berriro ere dantzaldia izango da Errebote Plazan, goizaldeko 03:30ak bitarte.

Ospakizunei, igandean emango zaie amaiera. 09:00etan diana izango da. Ondoren, 10:30ean, buruhandiak eta trikitaliak irten-go dira kalera, eta 11:30ean, Errebote partida jokatu dute plazan.

## → Laburrak

### 'Sin Nombre' pelikularen proiektzioa, gaur, Zizurkilen

**ZIZURKIL** > Maiatza Saltsan ekimenaren barnean, *Sin Nombre* filma proiektatuko dute gaur arratsaldeko zazpiretan, Atxulondo kultur etxean. Cary Fukunagaren filmak immigrazioaren gaia jorratzen du, eta ordu t'erdiko iraupena du. Bestalde, ostiralean, udal jardunaldi teknikoak egingo dira Atxulondon.

### Asteburuan, espeleologia irteera egingo du Oargik

**TOLOSA** > Oargi Mendi Elkartek espeleologia irteera antolatuko astebururako. Ostiralean irten eta igandean itzuliko dira eta bitarte horretan, Rames de la Victoria herriko aterpetxe batean egingo dute lo. Bidaia-aren prezioa, 41 eurokoa da. Joan ahal izateko, derrigorrezkoa da rapelatzeko jakin eta leku estuei beldurrik ez izatea. Izena emateko, 688698642 telefonora deitu edo [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera idatzi beharko da, eta 20 euro aurreratu beharko dira kontu korronte honetan: 3035 0028 11 0281141038.

### Euskal Jaiak antolatzeko deialdia zabaldu dute

**TOLOSA** > Aitzina batean Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzituen *Fiestas Euskaras* izeneko jaiak, duela 100 urte Tolosan ospatu zirela aitxakiaz hartuta, euskara eta euskal kulturaren inguruko egitasmo berri bat egiteko ideia sortu da. Esparru guztietako ekitaldiak antolatu nahi dira, hala nola, musika, artea, dantza, poesia, hitzaldiak, mendia, kirola, erakusketak... Hori dela eta, herriko kultur-eragile guztiei deialdia egiten diete irailan burutuko den ekitaldi horri begira proposamenak botatzeko. Batzarra ostiralean egingo da, 19:00etan Tolosako kultur etxean.

### Istriupen ekiditea eta lehen sorospen ikastaroa Tolosan

**TOLOSA** > Istriupen ekiditea eta lehen sorospenak haurtzaroen ikastaroa eskainiko du DYAK Tolosan. Iraupena astebeteko izango da: astelehenean hasi eta ostiralean amaituko da. 10:00etatik 12:00etara bitartean emango dira klaseak kultur etxean. Erorketa, eztrikio trabamendu, erredura edo intoxikazioei aurre egiteko oinarriko ezagutzak irakatsiko dira, modu teoriarik, nahiz praktikoa. Matrikularen balioa, 50 eurokoa da, eskuliburua barne. Izen emateak zabalik da, 943464622 telefono zenbakira deituz.

## Bidegoiango Udala

IRAGARKIA

Goizago Dendale taberna-jatetxea eta etxebizitza kudeaketarako kontratua esleitzeko lehiaketa deialdia egin du Udalak.

Deialdia dagoeneko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da eta interesatuek bere eskaintzak aurkezteko epea maiatzaren 23an amaitzen da.

Pleguan ezarritako ezaugarri nagusiak hauek dira: Kanona: hilean 215,00 euro + B.E.Z. lehiatzaileek hobe dezaketelarik. Kontratuaren iraupena: Bost urte zerbitzua prestatzen hasitako datatik aurrera.

Garantiak: behin behineko garantia 1.500,00 eurotako izango da. Informazio gehiago Udal Idazkaritzan jaso dezakezue bulego orduetan edo 943-681109 telefono zenbakira deituz.

Bidegoian, 2013ko maiatzak 3 Alkateak

# Hondakinei buruz mintzatuko da gaur Iñaki Petxarroman kazetaria

Berriako kazetariak, urte hasieran 'Su haietatik ke hauek' liburua argitaratu zuen hondakinen kudeaketaren inguruan

**M. Iraola** Amasa-Villabona

Tolosaldeko Mankomunitateak, eta Amasa-Villabonako Udalak antolatuta, hondakinen inguruko hitzaldia emango du Iñaki Petxarroman Berria egunkariako kazetariak, gaur 19:30ean Mintzolan.



Iñaki Petxarroman kazetaria. HITZA

Hondakinen gaia gertutik jarraritu du, eta urte hasieran, *Su haietatik ke hauek* izeneko liburua argitaratu zuen. Bertan, azken ha-

mar urte hauetan hondakinen inguruan gertatutako kronologia bat egiten du, hondakinen kudeaketarako Gipuzkoako plan integrala onartu zenetik, honaino. Horrez gain, zero zabor politika eta errausketa kontrajarri zituen, eta bere lanpostuari esker eskuratutako informazioei tiraka erraste plantaren atzean dauden interesak azaleratu.

Bestalde, maiatzaren 14 eta 15ean biziklapen kanpaina Amasa-Villabonara iritsiko da, eta hori dela eta hainbat tailer eta hitzaldi egingo dira.

# Komertzioa eta Kilometroak bultzatzeko akordioa abian

Tolosa&Co visa txartela bultzatu, eta hirugarren sektorean euskara sustatzeko helburua dute

**Iñigo Terradillos** Tolosa

Kilometroak 2013k eta Tolosa&Co merkatarien eta ostalarien elkarteak akordioa sinatu dute, hirugarren sektorea euskaraz lan egitera bultzatu eta Kilometroak ekimena laguntzeko. Akordio horren bidez, merkatariek nahiz Kilometroak 2013k Tolosa&Co Visa txartela sustatuko dute, eta txartelaren erabilpenak komertzioa eta Kilometroak bultzatuko ditu.

Unai Igartua Kilometroetako koordinatzaileak azaldu duenez, dendariak ere *Ahora* leloarekin bat egitea da xede: «Zerbitzua euskaraz eman dezaten bultzatu nahi dugu, hori bezeroek asko eskertzen baitute». Euren kasuan, hornitzaileekin lan egiterakoan



Juanjo Ruiz eta Unai Igartua, akordioaren berri ematen, atzo. IT.

euskarari berebiziko garrantzia ematen diotela gogoratu du: «Hornitzaile guztiak Tolosaldekoak izaten saiatzen garen moduan, eurekin lan egitean euskaraz aritzea exijitzen diegu».

Juanjo Ruiz Tolosa&Co elkarteke lehendakariak adierazi du bat egin dutela Kilometroekin eta euren ekitaldiak bultzatuko di-

tuztela. Era berean, euren arteko elkarlanak Kilometroak, euskara eta merkataritza sustatzeko balioko duela nabarmendu du.

Egun 4.000 Tolosa&Co visa txartel erabiltzaile daude. Hauek komertzioetan nahiz Rural Kuttan eskatu daitezke, «era errazean, norberaren banketxea aldatu gabe».



200 lagun inguru espero dituzte Berastegin, igandean. J. SAIZAR

## Berastegiko XXI. Ibilaldi Neurtua izango da igandean

30 kilometroko ibilbidea egingo dute mendizaleek; gaztetxoentzat ere ibilbidea prestatu dute

horietatik igaro beharko dute mendizale guztiak, eta larrialdi zerbitzuak eta elikagaiak ere egongo dira.

Izen ematea, egunean bertan egin beharko da, 06:30etik aurrera, eta 6 euro ordaindu beharko du parte hartzaile bakoitzak. Mendizaleek txarteltxoa jasoko dute, eta hori ibilaldiko gune bakoitzean erabili beharko dute denbora jartzeko. Ibilaldia amaitzen denean, babesleek eskainitako zenbait opari zozketatuko dituzte proba bukatzen duten mendizaleen artean.

Normalean 200 lagun inguruk hartu ohi du parte Berastegiko ibilaldian, baina iaz 300 mendizale inguru izan ziren. XIV. Orduen Ibilaldia izaten den urtean kopurua handitu ohi dela nabarmendu dute antolatzaileek, eta aurten ere, ohiko moduan, 200 lagun inguru espero dituztela.

### Txikienez ere bai

Bestalde, txikienez ere izango dute aukera mendi buelta egiteko. Izan ere, urtero bezala, Guraso elkarteak antolatuta, Txikien Ibilaldia egingo da. San Lorentzotik barrena egingo dute ibilaldia, 09:00etan plazatik abiatuta.

**I. Terradillos** Berastegi

Berastegiko Basurde elkarteak antolatuta, XXI. Ibilaldi Neurtua izango da igande honetan, hilaren 12an. Herria inguratu den 30 kilometro inguruko ibilbidea prestatu dute, eta zortzi orduko gehieneko denboran egin beharko dute mendizaleek.

Aurtengo ibilbidea iazkoaren oso antzekoa izango da: Berastegiko plazatik abiatuko dira mendizaleak, Aiztun auzotik gora egingo dute, eta handik Lartera igoko dira. Bokete, Uli eta Ulizarra igo ondoren, Urto eta Plazaola aldera egingo dute, eta errege-neko bordan barrena Ipulñora joango dira. Gorosmenditik San Lorentzo ermita ikusiz mugara jaitsiko dira, eta Berastegira itzuli.

Irteera Berastegiko plazan izango da, 07:00etan. Ibilbidean kontrol guneak egongo dira, eta

## Irudia ◊ Tolosa

### KILOMETROEN ZIRKUITUA EGIN DUTE HAINBAT HERRITARREK

Eguraldi onaren laguntzarekin, jende asko animatu zen igandean Kilometroak 13ko zirkuitua ezagutzera. Herrigunetik nahiz kanpoaldetik igarotzen den ibilbidea zehar, gainera, Unai Igartua KMK13ko koordinatzaileak guneen kokapenaz, ibilbidearen filosofiaz eta egin beharreko lan ezazalpenak eman zizkien bildutakoiei. «Ibilaldi polita eta atsegina» izan zela azaldu dute Kilometroak 2013tik. HITZA



**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA** jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA** Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



**Galtzaurdi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**GAUR**

**DEIALDIAK**

- **Amezketak.** San Bartolome jaiak antolatzen hasteko bilera egingo da, 20:30ean, erabilera anitzeko gelan.
- **Berastegi.** Haur eskolan izena emateko epea zabaldu dute. 2012 eta 2013 urteetan jaiotako haurren gurasoei zuzendua dago, eta maiatzaren 13a izango da azken eguna.
- **Ikaztegieta.** Arin-arin eta fandango ikastaroan izena emateko aukera dago. Hurrengo astean hasi eta San Joanak bitartean izango da, asteartean 19:45etik 20:45era. Izena emateko azken eguna hilak 10 izango da, 943 65 33 29 udaletxeko telefono zenbakira deituz.
- **Ikaztegieta.** Auto konposta etxean egin nahi duenak izena emateko aukera du udaletxean. Hilaren 10a baino lehen, 943 65 33 29 telefonora deitu behar du familia bakoitzak. Auzo konposta egin nahi dutenek ere izena eman behar dute.
- **Irura.** Tolosaldeko Mankomunitateak hasi duen Birziklapen bira Iruran izango da. Herritarrak birziklatzearen garrantziak jabetzeko informazioa banatuko diete, eta baita gaiarekin lotura duten produktuak ere banatuko dizkiete.
- **Tolosa.** Berria egunkariaren 10. urteurrenaren harira, Anje Duhaldek kontzertua eskainiko du, hilaren 17an, 20:30ean. Sa-

- rrerak, Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZA egunkariaren egotzian daude salgai.
- **Zizurkil.** Maiatza Saltsanen barruan, 19:00etan, *Sin nombre* filma eskainiko dute, Atxulondon.
- **Zizurkil.** Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute udalak eta Txepetxa gazte asanbladak. Izena udal bulegoetan edo Atxulondo, Iriarte eta Egarrri tabernetan eman beharko da, eta 10 euro momentuan ordaindu beharko dira.
- **Musika.** Loatzeko Musika eskolak matrikula egiteko epea zabaldu dute. 4,5,6 eta 7 urteko ikasleek izena eman dezakete. Alegia, Villabona, Zizurkil, Ibarra, Altzo, Irura edo Anoetako musika eskoletan egin ahal izango da. Era berean, saxofoiak ikasi nahi dutenek ere izena eman ahal dute. Mankomunitateak kanpoko ikasleak onartuak izango dira.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Egunkeroa eta gauekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
  - **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.
- HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.



Brasilgo ordezkartzako kideak Tolosaldea Garatzen garapen agentziako ordezkariekin, atzo, i.G.L.

# Tolosaldea ezagutzera etorri da ordezkartza bat Brasildik

Eskualdeko lurralde antolamendua eta garapen ereduak ezagutu dute Tolosaldea Garatzenen eskutik

**Imanol Garcia Landa**

Brasilgo Parana Mendebaldeko eskualdeko ordezkartza batek bisita egin zuen atzo Tolosaldera. Ibai Iriarte Tolosako alkateak eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak,

Joxe Luis Urdangarin Tolosaldea Garatzeneko kudeatzaileak eta Olatz Ilarregi Tolosaldea Garatzeneko Turismo saileko arduradunak egin zieten harrera Lehiberri zentroan. Brasilgo ordezkartza, besteak beste, Parana Mendebaldeko eskualdeko zenbait alkate, merkataritza ganberetako presidente eta garapen agentzietako arduradun izan dira. EAEan eman den lurralde antolamendu eta garapen ereduak ezagutzera, eta alor horretan eman di-

ren «praktika onak kontuan izatea» da bisitaren helburua. Eredu horren hainbat alor ezagutu dituzte Brasildik etorritakoek: lurralde garapenerako estrategiak, gobernatzeko ereduak, tokiko garapena, industria politika, turismoaren sustapena eta dinamizazioa, jasangarritasuna eta kooperatibismoa. Ordezkartza Lehiberri zentroan izan zen eta, jarraian, Tolosaldean barrera bisita turistikoak egin zuten eskualdeko turismo bulegoaren laguntzaz.

**Agurrak**



**Zorionak Gari!**

Lizartzako ezker abertzalearen partetik, zure zain gaude!

**AGURRAK**  
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info



**Mauka berria** **GAURKO ESKAINTZA**

## Gerra zibileko frontea ezagutzeko abagunea

ELGETAKO UDALA  
Mendizaleen plaza  
ELGETA 20690 - GIPUZKOA  
Tel.: 973-79 64 63  
turismo@debagoiena.net  
www.elgeta.org/ezagutu/elgeta-eta-gerra-zibila/bilbildea

Prezioak **3€** nagusiak  
**1€** umak 6-16 urte

**www.mauka.eu** **berria** taldea